



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 17a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da endometriosisia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko konpromisoa hartzen du, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Arma Nuklearrak Debekatzeko Tratatu babestu dezan. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (5. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, garraio-txartel bakarrak gazteentzat dituen ondorioei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikulua betetzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, zahar-etxeek 2021ean pairatu duten arazo ekonomikoari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (8. or.).

- Galdera, eguneko zentrozen plan zuzendariari eta co-housing zein etxebizitza babestuen arloko aurrerabideari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (9. or.).
- Galdera, datozen hilabeteetako barne produktu gordinaren (BPGd) hazkundearen gaineko aurreikuspenei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Martzillako adingabeendako Behaketa- eta Harrera-zentroan arreta hobetze aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen 39. artikuluari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen 33. artikulua aipatzen dituen lan-mahai edo -foroei buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Endarlatsa-Behobia tarteko eten/desbideratzeak direla-eta egindako jarduketei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren eta garraiolarien artean lortutako akordioei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, COVID-19aren kudeaketan babes-materialak eta gisakoak erosteko kontratazio-espeditenteei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Iruñerriko eskaintza industrial berrantolatzeari begira Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, joan den legegintzaldian hedabideei banatutako publizitate instituzionalari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, autokarabana-turismoari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako sektore publikoa egonkortzeko prozesuei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, etxebizitzaren alokairuan jarduten duten enpresei hobari fiskalak egiteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, COVIDaren kutsatze kopurua igo izanari eta haren bilakaerari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutua sortzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Martzillako Adingabeendako Zentroaren egoera buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, ohiz kanpoko neurri bereziak hartzeari buruzkoa, Sanferminetan birusari aurre egite aldera. Mikel Buil García jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko maiatzaren 23ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Foru Lege

proposamena 2022 urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/PRO-00001).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da endometriosia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentu Osasun Batzordeak, 2022ko maiatzaren 11n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da endometriosia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Laguntzarako antolamendu-eredu bat osatzea endometriosia izateko susmoa edo diagnosia duten emakumeentzat.

2. Diziplina anitzeko endometriosi unitate bat ezartzea Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan.

3. Endometriosiaren detekzio goiztiarrerako protokolo bat ezartzea Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan eta Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun-langileen prestakuntza hobetzea.

4. Nafarroan dauden gaixoen erregistro edo errolda erreal bat osatzea.

5. Endometriosiaren genetikari eta tratamenduari buruzko ikerketa sustatzea.

6. Endometriosia dela-eta lanerako ezintasunak eta minusbaliotasun graduak zehazteko irizpideak aldatzea.

7. Gaixotasun honi buruzko difusio-kanpainak egitea”.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko konpromisoa hartzen du, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentu Osasun Batzordeak, 2022ko maiatzaren 11n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko konpromisoa hartzen du, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera”.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Arma Nuklearrak Debekatzeko Tratatu babestu dezan.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Arma Nuklearrak Debekatzeko Tratatu babestu dezan (10-22/MOC-00051).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, honako mozio urgente hau aurkeztu dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

76 urte igaro dira Hiroshiman eta Nagasakin bonba nuklearrak jaurti zirenetik, baina bonba haiek eragindako izugarrikeriaren, biktimen eta bi hiriek jasandako txikizioaren oroitzapenak gure memoria kolektiboan dirau.

Gerra Hotzaren amaierarekin, Estatu Batuek eta Errusiak aldebiko akordio batzuk sinatu zituzten arma horiek murrizteko. Arma asko suntsituak izan ziren, baina oraindik ere 13.000 bonba nuklear baino gehiago gelditzen dira, Hiroshima eta Nagasakikoek baino suntsitze-ahalmen handiagoak.

Azken 20 urteotan, Estatu Batuen eta Errusiaren arteko lankidetzaren nuklearra okertzen joan da, eta bi herrialde horien armategiak arautzen zituzten aldebiko hitzarmenak ez dira berriak izan. Eta Ukrainako gerrak Europako kontinentea arma nuklearren balizko erabiltoki bezala paratzen du, Gerra Hotzean izan zen bezalaxe. Jadanik ez daukagu arma nuklear taktikoak edo ez-estrategikoak kontrolatzeko trataturik; horrenbestez, bai Estatu Batuek bai Errusiak nahi adina fabrikatzen eta tokiratzen dituzte.

Azken urteotan ikusi dugu nola arma nuklearrak dauzkaten herrialdeek beren armategiak berritzen ari diren zama nuklear txikiagoko eta, beraz, suntsigarritasun txikiagoko armen multzo zabal baten bidez. Horrek esan nahi du arma horien erabilera egingarriagoa eta sinesgarriagoa dela. Indar gutxiagoko arma horien erabilerari buruzko kezka areagotu egin da. Beldurra da mehatxu nuklearraren norgehiagoka hori burutzea indar gutxiagoko arma nuklearretako bat lehertarazteko erabakiarekin, halatan apurturik haien erabilerari buruz duela 76 urtetik egondako tabua.

Armategi nuklearrak berritzeaz gain, horiek garraiatzeko moduko hegazkinak ere modernizatuak izaten ari dira, eta berrituak izaten misil-siloak eta urpeko ontziak. Misil hipersonikoak ere garatze-bidean daude. Ez ditugu orain aipagai hartuko garatzen ari diren arma nuklearren prototipo berriak, ez eta horietara adimen artifiziala txertatzeko saioak ere.

Urte askotan zehar gizarte zibilak eta Gobernu Kanpoko Erakunde desberdinek, Bakearen aldeko Alkateen Sareak, bonba atomikoen jaurtiketatik bizirik ateratakoek eta abarrek eskakizunak eta kanpainak egin ondoren, funtsezko lehen urrats bat egin ahal izan da: Arma Nuklearrak Debekatzeko Tratatu (ANDT) sinatzea. 2022ko urtarrilaz geroztik, arma nuklearrak ilegalak dira, eta ANDTa jadanik nazioarteko legediaren parte da.

Arma atomikoak dauzkaten herrialdeek, hala nola Estatu batuek, Erresuma Batuak, Frantziak,

Txinak edo Errusiak eta NATOk herrialdeek, Espainia barne, ez dute ANDTa berretsi.

Arma atomikoen erabilera ezintzeko modu bakarra haiek deuseztatzea da.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du sostengua ematen diola Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren, Nazioarteko Gurutze Gorriaren, Mayors for Peace-ren eta ICAN-Arma Nuklearren Aboliziorako Nazioarteko Kanpainaren deia, arma nuklearrik gabeko mundu baten aldekoari.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du aldezen publikoa eman diezaion ANDT-Arma Nuklearrak Debekatzeko Tratatuari.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ANDTari atxiki dakion eta Estatu Behatzaile gisa parte har dezan –jadanik Alemaniak, Finlandiak, Norvegiak, Suediak eta Suitzak hori eginen dutela iragarri duten bezala– ANDTaren Estatu Kideen Lehen Biltzarrean, zeina 2022ko ekainaren 21etik 23ra bitartean eginen baita, Vienan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentariak: Javi Arakama Urriaga, Laura Aznal Sagasti, Ainhoa Aznárez Igarza eta María Luisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1 Nafarroako Parlamentuak bat egiten du aurtengo maiatzaren 17ko Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du LGTBifobia eta lesbiana, gay, tran-

sexual, transgenero, bisexual eta intersexualek pairatzen duten diskriminazioa desagerrarazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du Nafarroako LGTB+ elkarte guzti-guztiek egin, egiten eta eginen duten lan handia" (10-22/DEC-00024)

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, garraio-txartel bakarrak gazteentzat dituen ondorioei buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea garraio-txartel bakarrak gazteentzat dituen ondorioei buruz Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00176).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik garraio-txartel bakarra sustatzeko asmoz Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen artean sinatutako lankidetzahitzarmena:

Zer ondorio izanen du horrek gazteentzat?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikulua betetzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikulua betetzeari buruzkoa (10-22/POR-00178).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak ekintzaren bat aurreikusi al du Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikulua xedatutakoa aktibatze aldera?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zahar-etxeek 2021ean pairatu duten arazo ekonomikoari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, zahar-etxeek 2021ean pairatu duten arazo ekonomikoari aurre egiteko neurriei buruzkoa (10-22/POR-00179).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Isabel Aramburu Bergua andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Argi baino argiago eta behar bezala tasatuta dago COVID-19ak ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta zahar-etxeetan izan duen inpaktua. Horren ondorioz, egoitzek ohiz kanpoko gastu batzuei aurre egin behar izan diete, askotan egoera ekonomiko zaileraino iritsita.

Foru administrazioak halaxe aitortu du eta konpentsatu egin dizkie pandemiak 2020ean sorrarazi zizkien gastuak.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da:

Zer neurri aurreikusten du Nafarroako Gobernuak, eta haiak ezartzeko zein data, zahar-etxeek 2021ean ere pairatu duten arazo ekonomikoa ordaintzeko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

Galdera, eguneko zentroyen plan zuzendariari eta *co-housing* zein etxebizitza babestuen arloko aurrerabideari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, eguneko zentroyen plan zuzendariari eta *co-housing* zein etxebizitza babestuen arloko aurrerabideari buruzkoa (10-22/POR-00180).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren konpromisoei buruzko akordioan, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru-lege proiektuan eta tributu-neurriei buruzkoan, konpromiso orokor bat jaso zen zerbitzu publikoak indartzeko eta zainketen eta gizarte babesaren aldeko apustu irmoa bat.

Zerbitzu horiei dagokienez, akordioarekin batera konpromiso zehatz bat zegoen, eguneko zentroyen plan zuzendariari bat taxutzeko eta etxebizitza babestuen arloko aurrerabiderako. Kontuan hartuz konpromiso horiek aurten gauzatu behar direla eta plan zuzendaria, zehazki, irailerako egin behar dela, alde zurretik beharizanen diagnostikoa prestatuz, honako galdera hau aurkezten dugu:

- Prestatzeko zer fasetan dago eguneko zentroyen plan gidaria eta zer egiten ari da *co-housing* zein etxebizitza babestuen arloan aurrera egiteko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, datozen hilabeteetako barne produktu gordinaren (BPGd) hazkudearen gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, datozen hilabeteetako barne produktu gordinaren (BPGd) hazkudearen gaineko aurreikuspeni buruzkoa (10-22/POR-00181).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egoera aurreikusten du Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Foru Erkidegoko BPGd-aren hazkudeari begira datozen hilabeteetarako?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Martzillako adingabeendako Behaketa- eta Harrera-zentroan arreta hobetze aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Martzillako adingabeendako Behaketa- eta Harrera-zentroan arreta hobetze aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa (10-22/POR-00182).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Martzillako adingabeendako Behaketa- eta Harrera-zentroan arreta hobetzeko eta behin eta berriz izan diren gatazkak, azkena joan den asteartean, maiatzak 10, berriro gertatzea ekiditeko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen 39. artikuluari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen 39. artikuluari buruz Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00183).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta

Kiroleko kontseilariak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko Foru Legearen 39. artikulua honela dio:

“39. artikulua. Kultur ekintzailtzarako funtsak eta krediturako irispidea.

Kulturaren arloko eskumena duen departamentua, bere kabuz edo Foru Komunitateko Administrazioaren beste departamentu batzuekin edo beste entitate batzuekin elkarlanean, funtsak edo bestelako finantza tresnak sortzeaz arduratuko da, kultur sektoreetako mikroenpresei eta enpresa txikiei kreditua ematea errazteko. Halaber arduratuko da kultur ekintzailtza sortu, garatu eta hedatzeko eta kultur ondasun eta zerbitzuak ekoizteko pizgarria izan den beste edozein neurri hartzeaz”.

Departamentuak planteatu al du legearen puntu hori garatzea, berak edo bestea departamentu batzuekin batera?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen 33. artikulua aipatzen dituen lan-mahai edo -foroei buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen 33.

artikulua aipatzen dituen lan-mahai edo -foroei buruzkoa (10-22/POR-00184).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Eskubide Kulturalari buruzko Foru Legearen 33. artikuluko, 4. puntuko g) letrak dioe-

nez Departamentuak “Lan-mahaiak edo -foroak ezarriko ditu sustapen planak abian jartzeko kultur sektore ezberdinetan”.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diogu Kultura eta Kiroleko kontseilariari:

Departamentuak egutegirik edo kronogramarik al du foro horiek sortzeko eta garatzeko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, Endarlatsa-Behobia tarteko eten/desbideratzeak direla-eta egindako jarduketei buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, Endarlatsa-Behobia tarteko eten/desbideratzeak direla-eta egindako jarduketei buruzkoa (10-22/POR-00185).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduketa egin du Lurralde Kohesiorako Departamentuak Nafarroaren titulartasunarekin Gipuzkoan den Endarlatsa-Behobia tartean gertatzen ari diren eten/desbideratzeak direla eta, N-121-A errepideko erabiltzaileak ukitzen baitituzte?

Nafarroan, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren eta garraiolarien artean lortutako akordioei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren eta garraiolarien artean lortutako akordioei buruzkoa (10-22/POR-00186).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua bat al dator Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak garraiolariekin lortzen dituen akordioekin?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, COVID-19aren kudeaketan babes-materialak eta gisakoak erosteko kontratazio-espeditenteei buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19aren kudeaketan babes-materialak eta gisakoak erosteko kontratazio-espeditenteei buruzkoa (10-22/POR-00187).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez ditu eman nahi Gobernuak COVID-19aren kudeaketan babes-materialak eta gisakoak erosteko kontratazio-espeditentetatik Kontuen Ganberak Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen arabera "formalizatu gabe" gisa aipatzen dituenak?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Iruñerriko eskaintza industrial berrantolatzeari begira Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Iruñerriko eskaintza industrial berrantolatzeari begira Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa (10-22/POR-00188).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren eta Iruñerriko toki entitateen arteko elkarrizketa-konferentzian Gobernuko lehendakariak iragarri zuen Iruñerriko eskaintza industrial berrantolatzeari begira Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikiko dela. Zein dira hori eraikitze epeak, aurreikusitako lekua, behar den inbertsioa, ikastetxe berrira eramanen diren espezialitateak, zer ikastetxetatik eta mugimendu horiek sorraraziko dituzten espazioen erabilera?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro

Galdera, joan den legegintzaldian hedabideei banatutako publizitate instituzionalari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, joan den legegintzaldian hedabideei banatutako publizitate instituzionalari buruzkoa (10-22/POR-00189).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak erabakiren bat hartuko al du epai judizialean egiaztatu ondoren egun kontseilari den Ollo andrearen departamentuak joan den legegintzaldi osoan hedabideendako publizitate instituzionalaren banaketa arbitrarioki esleitu zuela?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, autokarabana-turismoari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea autokarabana-turismoari buruz Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00190).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako autokarabana-turismoa gero eta indar handiagoa hartzen ari den sektorea da, eta, araudi espezifiko bat dagoen arren, eremu horren bilakaera eta garapen-aurreikuspena direla-eta araua sektorearen errealitateara eta premietara egokitu behar da.

Zer aurrerapen eta neurri hartu edo hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean legegintzaldi honetan zehar autokarabana-turismoaren inguruan?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Nafarroako sektore publikoa egonkortzeko prozesuei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako sektore publikoa egonkortzeko prozesuei buruzkoa (10-22/POR-00191).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduketa egiten ari da Nafarroako Gobernuak, zehazki Funtzio Publikoko Departamentua, abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoa betetzeko, Nafarroako sektore publikoa egonkortzeko prozesuei dagokienez?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, etxebizitzaren alokairuan jarduten duten enpresei hobari fiskalak egiteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, etxebizitzaren alokairuan jarduten duten enpresei hobari fiskalak egiteari buruzkoa (10-22/POR-00192).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

- Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera sozietateen gaineko zergaren 92. eta 93. artikulak aldatzeari buruz etxebizitzaren alokairuan jarduten duten enpresen etekinen % 90erainoko hobari fiskalei dagokienez?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, COVIDaren kutsatze kopurua igo izanari eta haren bilakaerari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVIDaren kutsatze kopurua igo izanari eta haren bilakaerari buruzkoa (10-22/POR-00193).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egiten du, Parlamentuko kontrolleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Maskararen erabilera, zenbait salbuespenekin, kendu eta aste batzuk iragan ondoren, COVIDaren kutsatze kopurua igo da.

Zer balorazio egiten du Osasun Departamentuak azken asteotan COVIDaren kutsatze kopurua igo izanari buruz eta zer aurreikuspen du haren bilakaerari buruz?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutua sortzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Inbertsio Institutua sortzeari buruzkoa (10-22/POR-00194).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Inbertsio Institutua sortzearen azken xede edo helburua?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Martzillako Adingabeendako Zentroaren egoera buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Martzillako Adingabeendako Zentroaren egoera buruz Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera (10-22/POR-00195).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak heldu den maiatzaren 19ko Osoko Bilkuran, ostegunarekin, ahoz erantzun dezan:

Azken egunotako informazioak direla-eta, zein da Martzillako Adingabeendako Zentroaren egoera?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16n

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, ohiz kanpoko neurri bereziak hartzeari buruzkoa, Sanferminetan birusari aurre egite aldera.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ohiz kanpoko neurri bereziak hartzeari buruzkoa, Sanferminetan birusari aurre egite aldera (10-22/POR-00196).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak 2022ko maiatzaren 19ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Aste Santuaren ondotik COVIDaren infekzio-kopuruaren igoera eta laneko bajetan zein kutsatze-kopuruan izandako eragina ikusirik:

Osasun Departamentuaren ustez ohiz kanpoko prebentzio neurriak beharko al dira Sanferminetan birusari aurre egiteko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzeko epea **2022ko maia-**

tzaren 26ko eguerdiko 17:30ak arte luzatzea. (10-22/ELC-00004).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
